Francois Suhas Frantxoa

Bardoze, Lapurdi (1935-2015) *Francois Suhas*

Aurkibidea

Biografia

Francois Suhas

Ibarre auzoko Etxemendia etxean sortua 1935eko ekainaren 1ean. Aita-amak biak bardoztarrak zituen, aita Bidartea etxekoa (bordariak edo maizterrak), ama Satharitzea etxekoa (bordariak ere bai). Biak joan ziren Etxemendia etxera bordari gisa, eta bertan geratu ziren. Haurrak handitu zirelarik, Iriberria izeneko etxea erosi zuten, eta han geratu.
Ezkongabea zen bera. Elkarrizketaren egitean, anaia (Joseph) eta koinata (Isabelle-Etiennette) hor ziren, elkarrekin bizi zirelakoz.
Kanpoko garraio enpresa batean lan egin du hark, eta horri esker Ipar Euskal Herriko hainbat herri ezagutzen ditu.
Euskaraz eta gaskoiz mintzatzen badaki.

Zintak

BDZ-006

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Erremundeguy, Joseba

- **Data**: 2013-01-01
- **Iraupena**: 23 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Dibon, Peio

Pasarteak

1. Alemanak Bardozen egonak

- **Erref**: BDZ-006/016
- **Iraupena**: 0:00:31. **Hasi**: 00:07:40. **Bukatu**: 00:08:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945) » Eragina Ipar Euskal Herrian

Laburpena:
Isabellek, Frantxoak eta Josephek diotenez, alemanak egonak ziren Bardozen gerla garaian, Sala eta Eihartzea etxeetan.

Transkripzioa
- Bardozen berean egon ziren, alemanak?
- Ba, hor, xatoan.
- Non? "Château"an?
- Ba.
- Xatoan, ba. Eta seroretan.
- Seroretan e'.
- Andregai bat bila, seroretan?
- Eta ba, te... "Enfin", ez zen seroraik ordüyan. Ez zen /etzen/ serorik ordian.

2. Egun bat, meza bat

- **Erref**: BDZ-006/019
- **Iraupena**: 0:00:41. **Hasi**: 00:09:12. **Bukatu**: 00:09:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:
Isabellek erraten digu denboran Bardozen meza bat egunero iragaten zela, eta jende anitz biltzen zela han. Orain aldiz, Frantxoak dioenez, herriko bestetan jende gehiago elkartzen da.

Transkripzioa
- Eta lehenago, apezek eta, izanen zuten orain baino indar gehiago, ez? Jendea gehiago mezara joaten zen denbora hartan?
- Isabelle: A ba, ba, ba... joan zen, ordüan, egunoz bazen meza, egunoz bazen jendea mezan, mezetan.
- Frantxoa: Oai bada gehio pestetan!
- Bestetan, bai!
- I.: Oai, bon, eta ez da /ezta/ apezik'e oai, eta iandetan hamabostetik

beizik meza, eliza bakotxean, eta "voilà".
- Eta meza, zer egiten zen? Frantsesez, euskaraz, gaskoiñez?

3. Ibilitzen zen herrietan euskara gehiago

- **Erref**: BDZ-006/023
- **Iraupena**: 0:00:38. **Hasi**: 00:11:07. **Bukatu**: 00:11:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak

Laburpena:
Frantxoa anitz ibili da Ipar Euskal Herrian gaindi haren lanerako: Donibane Garazin, Heletan, Ainhoan... Herri hauetan gehiago aritzen zen jendea euskaraz Bardozen baino.

Transkripzioa
- Frantxoa: Eskual Herrian izan niz, ni, hameka... hamabi urte.
- Non?
- F.: Doniane Gaazi (Donibane Garazi) eta eskualde hortan. Heleta ta Ezpeleta, eta Ainhoa eta... Ez da /ezta/ hemen bezalako, hemen bezala eskual bera.
- Ez, ez. Zu Ainhoan izana zara?
- F.: Ba, nik banintien kliantak Ainhoan.
- A? Nor zenituen?
- F.: Zerri martxantaekin ni nintzan "chauffeur", ordien... Bazien kliantak.
- Han gehiago mintzatzen zen toki horietan euskaraz hemen baino?
- F.: A, ba!

4. Zerrikiarekin prestatutako puska guziak

- **Erref**: BDZ-006/027
- **Iraupena**: 0:01:14. **Hasi**: 00:12:51. **Bukatu**: 00:14:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:
Bi zerri etxean berean hiltzen zituzten, eta hauekin "tripota", "sabelea", "pantxeta", etab. prestatu. Nola deitzen zioten gauza bakoitzari (eta inguruko herrietan nola).

Transkripzioa
- Eta zerriak hiltzen zenituztelarik, nola, zer zerri puska egiten zenuten? Nola erraten da "boudin" eta holakoa?
- Frantxoa: A! Tripota ta lukinka.
- 'Tripota' erraten duzue zuek?
- F.: Ba.
- 'Tripota'?

- F.: Hemen ba.
- Isabelle: Guk 'Sabelia'...
- A? Zer da hori, 'sabelia'?
- I.: 'Sabelia'... tripota.
- A, to.
- F.: Ba Heletan'e bada 'tripotxa', erraiten dute.
- Bai, guk ere, baina guk hori bildoskian, bildoskiarekin egiten dugu 'tripotxa'.
- F.: Bai.
- Baina zerrikiekin, 'odolkia'.
- I.: 'Odolkia'?
- F.: 'Pantxeta'...
- Zer da hori?
- F.: Atzarraekin ina.
- I.: Atzarraekin ina, 'pantxeta'...
- [...]
- 'Pantxeta', hau, hemen, hori da ardiarekin egiten dena?
- I.: Bai, 'pantxeta'.
- Hola, odolkia, ardiena?
- I.: Ba.
- F.: Irisarrin edo hola, anhitz, puta, ona zen hoi! Klianten etxen, amen bat beste amen bat... Ezagutzen nitin... Oai ahantzia [...] ba: "[...] ikusteat! Itzuli bat!". "Oui, oui." Ba, denak sanjatiak dia oai.

5. Biztanlegoaren aldaketak

- **Erref**: BDZ-006/028
- **Iraupena**: 0:00:44. **Hasi**: 00:14:05. **Bukatu**: 00:14:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:
Lehenago, auzoekin baserri lanetarako elkar ikusten zuten. Orain aldiz, ez dute harreman hori atxiki, eta bardoztarren erdia ez dute gehiago ezagutzen. Errugbi taldean ere, ez dutela nehor ezagutzen diote.

Transkripzioa
- Lehenago, jendeak laguntzen zuen gehiago, ez?
- Isabelle: Ba, ba, ba. Ez da/ezta/... ez zen /etzen/ oai bezala e! Auzoak eta beti elgarrekin ginden eta...
- Frantxoa: Hemen bada, Bardotzen, ez duu /eztuu/...ze, jendeaan erdia ezagutzen gehio... Denak atea tie... Ina die...
- I.: "Lisette! Oh la la...!"
- F.: Hiritik, eta...
- Bai, kanpotar anitz bada sartua.
- I.: A, ta ba. Bardoz... Bardotzeko jendeik ez da /ezta/... ez da... kasik [...]
- F.: Ba, diela hamar bat, hamabortz bat urte, ibiltzen ginian, rübia bazen Bardotzen, eta bagindiin ilobak eta hola aitzina... Bana oai ez duu /eztuu/ ezagutzen nehore gehio!

6. Garitik ogira

- **Erref**: BDZ-006/029
- **Iraupena**: 0:03:27. **Hasi**: 00:14:49. **Bukatu**: 00:18:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Errota
- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Baserria » Baserriko lanak

Laburpena:
Ogia astero egiten zuten Iriberrian. Etxean egindako garia ezkaratzean kontserbatu ondotik, errota batera eramaten zuten irina bilakatzeko. Etxean zeukaten labean egosten zituzten ogiak.

Transkripzioa
- Eta gero, zertarako etortzen ziren laguntzera, auzoak? Zerria hiltzeko? Eta gero, ba bertze batzuetan etortzen ziren?
- Isabelle-Louisette: A ba, lan... lanetan e', elgar laguntzen ginen, udan belarretan, eta... ze... zernahi motetan.
- Ogia egiteko, eta ogia juteko, eta...
- I. L.: Ogia egiteko.
- Egiten zenuten ogi gehiago eta? Egiten zenuten, ogia?
- I. L.: Ba, ba, ba, ba.
- Eta gero etxean egiten zenuten?
- I. L.: Jo... joten, ba.
- Frantxoa: Ba maxinaekin, hor zen, ezkaratza zen hor. [...] emaiten nien dena, ta geo maxina gielian, ta geo ale...
- I. L.: Leheno iten... iten zen oaiko...
- Joseph: Bi eihera [...]...
- Bi eihera? Bardozen berean?
- J.: Ba, ba, [...]...
- F.: Hiru!
- I. L.: Hiru, hiru.
- F.: Gixeko (Gixune) limitan.
- Eta jendeak harat eramaten zuen ogia?
- F.: Ba, ba! Ba pasatzen zien mandoekin e', etxetan...
- I. L.: Etxetan...
- F.: Ogiaan xeka, irinaan egiteko, eta geo...
- I. L.: Artoa 're mestu... mesturaan iteko.
- A bai, hori Vivier-ek (Jean-Baptiste Vivier) kontatua nau. Eta labea bazenuten etxean ogia egiteko?
- F.: Ba, ba.
- Eta asteko ogia egiten zen orduan? Aste guziko?
- I. L.: Ba asteko ogia, aste... "Enfin" iten giniin ogia eta geo fini zelaik...
- Berriz?
- I. L.: arra iten giniin.
- F.: Bardotzen, oono, iten zuten beant e, ogia, Beterbidian!
- I. L.: Ba, ba, etxe ogia iten zuten oono, beantian, bana geo bon... abandonatu zuten.
- F.: Banien Martikorena, Iisarrin (Irisarri), erdi espaiñola zien, bietan iten zuten astian, ogia. Zonbait aldi jan dut xingarrekin ogia, fresko-freskoa, "putain"!
- Batzuk patatekin egiten zuten, omen.
- I. L.: Nola?

- Patatarekin. Batzuk egiten zuten nahasita, zenbaitek.
- I. L.: A ba, ba, ba.
- Patatarekin.
- I. L.: Ba, patatekin, ba.
- Ez dakit, ez dut behin ere dastatua!
- I. L.: Nik e' ez, eta beti ogiakin in duu, guk, eta... ogi irina.
- Eta andrek egiten zuten hori? Ogia?
- I. L.: Ba aitak eta... ait' eta amek iten zuten... ze... zernahi, "enfin" batek edo bestiak iten zuten pasta, eta "voilà".
- F.: "Oui, oui" oro denak aldea die!
- I. L.: Eta fini! Hoi fini, hoi oro...
- Hori fini eta noiz zen, noiz zen hobeki? Lehenago edo orain?
- I. L.: A be lehen... oai, oai bizi denak behar balu bizi gue denboran...

7. Lehengo eta oraingo janaria

- **Erref**: BDZ-006/030
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:18:16. **Bukatu**: 00:19:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:
Mestura, "turniola" eta horrelako beste etxeko nahasketak jaten zituzten egunerokoan. Orain baino osasuntsuagoak izan behar zutela dio Frantxoak.

Transkripzioa
- Joseph: Eta bola bat esne mesturaekin.
- Mesturarekin?
- Frantxoa: Ba, mestura, edo... iten ginien torniola!
- J.: Torniola!
- Zer zen hori, 'torniola'?
- J.: Ogi irina eta arto irina. "Quand on fait la graisse, de cochon..."
- Isabelle.: Urina itien, eta axken... axken... urinaakilan, xigorrak kentzen... iten ziin, eta gio axken zeraakin, eta han iten gindiin arto irina eta arto... eta ogi irina, han eta... iten... iten gindiin torniola...
- J.: Torniola, eta gio [...] emaiten [...] "saladier" hoitaik. Eta geo aatsien, esneaekin, torniola.
- Nahasita? Eta ona zen hori?
- I.: Ona zen, ba!
- F.: Ba... berdin oai bano sanoago zen, segura 're!
- Bai.
- I.: Oaiko 'hamburger"...!
- F.: A e te, hola, hola!
- I.: Oai "hamburger" eta hoitaik da, behar dena, bana leneho ez zen / etzen/ hola! Zopa eta...
- F.: Oai zopa, 'kozina' erraiten duu hemen. Irina presta badia. Han iten dute. Bana etxekoa nagusi da denetaik.

8. Arratoia zopa barnean

- **Erref**: BDZ-006/032
- **Iraupena**: 0:00:57. **Hasi**: 00:20:26. **Bukatu**: 00:21:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:
Frantxoak kontatzen digu Marseillan pasatu zuen soldadugoan gertatu zitzaiona, jateko orduan. Denak eltze baten inguruan jarririk zeudelarik arratoi ("garratoin") bat ikusi zuten zopa barnean...

Transkripzioa
- Frantxoa: Zerbitzia egin dut han... egin dudalaik, Marseillan, klasak egin ditut /tut/ han, hasi mahainien, zopa. Zopa, "voilà", bana... barnien - nola erraiten da? - garratoin bat bazen!
- Zoparen barnean?
- F.: "Oui" ! Hura ikusi dut!
- Beharbada, gostu ona eman zion...!
- Isabelle-Louisette: Eta beharbaa!
- Erraten dute lapinen gostu bera duela! Ez dakit, ez dut dastatu nik...
- I.L.: Nik ez dut /eztut/... bana bon, "en... en Chine", edo ez dakit /eztakit/ batee nun... eta jaten dituzte /tuzte/ hoik'e, izigarri ona dela...! Lapin gustia omen du. Te!
- F.: Aljerian, [...] han, bildu ginien asta bat...
- Zer hura? Astoa?
- F.: Eta hura...

9. Ehiztari izanak

- **Erref**: BDZ-006/033
- **Iraupena**: 0:00:47. **Hasi**: 00:21:23. **Bukatu**: 00:22:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:
Bardozen "leperia" erraten diote erbiari. Iriberrikoak ehiztariak izanak dira, eta batzuetan oraino segitzen dute. Ahuntz basa da gehienetan atzematen dutena.

Transkripzioa
- Zer da hori, "leperia"?
- Isabelle-Louisette: "Leperia"?
- Frantxoa: Erbia!
- I.L.: Erbia.
- A, erbia?
- F.: Ba. "Leperia" erraiten duu hemen.
- "Leperia"?

- F.: Besteñez, erbia da.
- Eta ihiztariak zarete? Ihiztariak?
- Joseph: Izanak.
- Izanak?
- J.: Izanak. [...]
- F.: Juiten gia oono.
- Eta hemen, zer ihiztatzen da?
- F.: Bihar, joanen gia [...] gabe, ahuntza basa...
- Basahuntza? Bai, badira, badira...
- F. Bo! Bada, bada...
- I.L.: Basaurdia bada zien etxen?
- Bai, bai, baina basahuntza gehiago.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-10-27

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com